

---

Euskaltzaindiaren  
Oroit-Idazkia  
1987



Memoria  
1987  
Real Academia de la Lengua Vasca  
Euskaltzaindia

---











Euskaltzaindiaren  
Oroit-Idazkia  
1987

Copyright

Euskaltzaindia

Arbieto, 3 - 48008 Bilbao

Amado moldiztegia

Alda. Mazarredo, 35 - 48009 Bilbao

Legezko Gordailua: BI-1653-1988

# AURKIBIDEA

1.- Ekintza Orokorrak.....	7
2.- IKER Saileko Batzordeak.....	19
3.- JAGON Saileko Batzordeak.....	41
4.- Akademi Zerbitzuak.....	53
5.- Ekonomia.....	67
6.- Aurkitegia.....	75





## **1.- Ekintza Orokorrak**



## 1.1. BILKURA ETA AKADEMI BILERAK

Euskaltzaindiak bere hileroko batzarre arruntak 1987. urtean era honetara egin ditu, hots, Gipuzkoako Foru Diputazioan, lau; Bizkaiko Foru Diputazioan, bat; eta beste bana, Plentzian (Bizkaia), Angelun (Lapurdi), Eibar-Arraten (Gipuzkoa), Urduñan (Bizkaia), Zarautzen (Gipuzkoa) eta Leitzan (Nafarroa). Gipuzkoako Foru Diputazioan, beste ohiz kanpoko, hiru bilkura egin ditu Orotariko Euskal Hiztegiaz bereziki.

Ohizko bilkurez gainera, urtean zehar zenbait mendeurren eta gertakari ospatu ditu batzarre ireki eta Jardunaldiak antolatuz, alegia:

- Urtarrilaren 30 eta 31n, Plentzian, Bizkaiko Diputazioak duen Aterpetxean, Lexikologi Erizpideak Finkatzeko V. Jardunaldiak.

- Martxoaren 27 eta 28an, Angeluko V.V.F. egoitzan, bi urtetatik behingo, V. Barne Jardunaldiak antolatu ditu, Euskaltzaindiaren barne ibilpide, batzorde berriztatze eta plangintzaz aritzeko. 30ean, igandez Eskualduna aldizkari entzutetsuaren mendeurrena ospatu du, Baionako Euskal Erakustokian egindako batzarre ireki batetan, bost txostengilek, orduko eta egungo komu ikabideak alderdi desberdinetatik ikertuz.

- Maiatzaren 29 eta 30ean, Eibarko Arrate auzoan, Gramatika Jardunaldiak eginik batera, ostiral iluntzean, Toribio Etxebarria euskalariaren mendeurrena ospatu du Euskaltzaindiak, batzarre ireki batez, Eibarko Udaletxean.

- Ekainaren 19 eta 20an, Zarauzko Sanzenea Kultur Etxean, Lexikologi Erizpideak Finkatzeko VI. Jardunaldiak egin ditu. Hileroko bilkura arruntetik aparte, batzarre irekia egin du bertako Udaletxean, Zarautz hiri-bilduaren sorrerako 750. urteurrena ospatuz. Zarautzek hasi frantziskotarren misiolari kolegioak izan zuen euskararekiko eragina eta bertako ikastolaren inguruan haur literatura eta testugintzaz sortutako mugimenduak plazaratu dira hiru txostenetan, Jardunaldi eta gainontzeko ekintzen artean.

- Irailaren 23an, Urduñan, Licenciado Andres de Pozaren De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas liburuaren laugarren mendeurren ospakizunak hasi ditu Euskaltzaindiak batzarre irekia eginez. Eugenio Coseriu Tübingengo irakasleak "Andres de Poza: lingüista del renacimiento, lingüista europeo" gaiaz eman du txostena; Carlos Gonzalez Etxegaraik Licenciado Pozaren bibliografiaz, eta Luis Mitxelenak, ezin etorriaz, Pozari buruzko aurrerapena igorri du. Hurrengo egunetan, II. Onomastika Jardunaldiak eta batzarre irekiak egin ditu, Bizkaiko hiri historiko hartan.

- Urriaren 23, 24 eta 25ean, Leitzan egin ditu zenbait bilkura, Patxi Zabaleta euskaltzainaren sarrera dela eta, hots, Lexikologi Erizpideak Finkatzeko VII. Jardunaldiak, hileroko bilkura eta azkenengo egunean, Udaletxean, euskaltzain berriaren sarrerako batzarre irekia.



## 1.2. BATZAR TXOSTENAK

- Hileroko batzarretan, ia beti izaten dira txosten akademikoak, batzutan eguneko gai bereziari lotuak, mendeurren, euskaltzainen sarrera edo ostantzeko ospakizun bat denean, edo bestetan, alegia, batzarre arruntetan, gai solte edo librean. Gehienetan ikerkuntza helburua izaten dute txosten hauek, alegia, Akademia baten xede nagusiari dagokionez.

Gai solteetan, 1987. urtean emandako txostenetan, hauek aipa daitezke:

- "Lexiko-berrikuntza eta bilketa-lana bideratzea", Mikel Zalbide urgazle eta Hiztegiintza Batzordeko idazkariak.

- "Felipe Arrese Beitiaren bertso argitaragabe batzuk", Josemari Velez de Mendizabal urgazle eta Euskal Idazleen Elkarteko buruak emana.

- "Allendesalazarren *Biblioteca del Bascófilo*-ren Katalogoaren mendeurrena" Jose Antonio Arana Martija urgazle eta Euskaltzaindiko Bibliotekari-ordeak.

- "Jaizkibel mendiko izen zahar batzuk", "Jean Dovoisin kapitainaren lan ezezagun bati zenbait ohar" eta "Cadizko Konstituzioa euskaraz", Juan San Martin euskaltzainak.

- "Eusko bibliographia eta euskara", Jon Bilbao euskaltzain ohorezkoak.

- "Stress and Pitch", Luis Mitxelena euskaltzain eta Iker Sailburu zenduak utzitako oharretatik, Maite Etxenike irakasleak buruturikoa.

Gai edo gertakizun bereziei dagozkienak:

- Eskualduna aldizkariaren mendeurren ospakizunean, txosten hauek aurkeztu dira:

- "Eskualdunaren mendeurrena Baionan", Pierre Charriton euskaltzainak.

- "Kazetari euskaldun baten kronika", Martin Ugalde urgazleak.

- "Euskal kazetaritza idatzia, ehun urtetan loratu ez den lanbidea", Luis Alberto Aranberri "Amatiño" kazetariak.

- "Irrati-telebistaren lekukotasuna", Jose M. Iriondo urgazleak.

. Toribio Etxebarriaren mendeurrenean bi txosten izan dira:

- "Toribio Etxebarria euskalari eta euskal idazle", Juan San Martin euskaltzain eibartarrak; eta

- "Toribio Etxebarriaren oroitzapenak", Jesus M. Leizaola euskaltzain ohorezkoak.

. Zarauzko hiri-bilduaren 750. urteurrena dela eta iker lan hauek irakurri dira:

- "Zarauzko frantziskotarren misiolari kolegioa eta euskara", Karmelo Iturria historiagileak.

- "Haur literatura eta testugintza, Zarauzko ikastolaren inguruan sortzen den mugimendua", Andu Lertxundi urgazleak.

- "Juan Mateo Zabalaren Eusquerasco dotrina eta sermoiac liburuaren aurkiketaz eta edukinaz zerbait", Luis Villasante Euskaltzainburuak.

. Patxi Zabaletak bere sarrera hitzaldian, gai nagusi bezala, honako hau erabili du, "Euskararen etorkizunerako baldintzak Nafarroan".

Pierre Charriton euskaltzainak egiten dio euskaltzain berriari erantzuna, haren bizitza eta lanak goraiatuz.

### 1.3. EKINTZA ORDEZKAGARRIAK

Zuzendaritzak eta Erakundeko beste kargudun edo kide batzuk, 1987an, ekintza, ikustaldi eta ospakizun hauetan parte hartu dute, Euskaltzaindia ordezkatzuz:

#### Urtarrila

15ean, Eibarko Udaletxean, Juan San Martin Jagon Sailburuak eta Ricardo Badiola Argitarapenen Eragileak Flexiones verbales y lexicon del euskera dialectal de Eibar liburuaren aurkezpenean parte hartu dute. Lan hau Euskaltzaindiaren eta Eibarko Udalaren artean berrargitaratua da.

19an, Gipuzkoako Foru Diputazioan, "Aitzol"en lan bildumaren aurkezpenean, Juan San Martin izan da Euskaltzaindiaren ordezkari erara.

20an, Bilboko Hotel Ercillan, Miguel Artola Estatuko Akademien "Instituto de España" delako erakundearen Zuzendariarekin izan dira Jose Antonio Arana Martija Bibliotekari-ordea eta Jose Luis Lizundia Idazkari-ordea.

24ean, Baiona, Piarres Lafitte euskaltzainaren omenez, Euskal Erakustokiak argitaratutako zenbaki bereziaren aurkezpenean. Jean Haritschelhar Buru-ordea, Juan San Martin Diruzaina eta Ipar aldeko zenbait euskaltzain egon dira.

#### Martxoa

3an, "Cadena SER" delakoan, euskararen jatorriaz eginikako programa batetan, Juan San Martinek hartzen du parte euskaltzain modura.

18an, Deustuko Unibertsitatean Joaquin Ruiz Jimenez "doctor honoris causa" izendatzea dela eta, Patxi Altuna eta Alfonso Irigoyen euskaltzainak izan dira ordezkari.

#### Apirila

6an, "Radio Nacional de España"n, euskal hizkuntza eta kulturari buruzko programa batetan, Juan San Martin Jagon Sailburuak ordezkatu du Euskaltzaindia.

8an, Iberdueroren Zuzendari berria bisitatzeko eta Euskaltzaindiari enpresa horrek babesten dizkion argitarapenez hitz egiteko, Luis Villasante Euskaltzainburua, Juan San Martin Jagon Sailburua eta Ricardo Badiola Argitarapenen Eragilea izan dira, Iberduerok Bilbon daukan egoitzan.

23an, Ajuriañean, Jose Antonio Ardanza Lehendakari izendatu

berriak, hartu du audientzian Euskaltzaindiko Zuzendaritza.

27an, Madrideko "Palacio Real de Oriente" delakoan, Erregeak, Kultur erakunde eta pertsonalitateen harrera ofizialean, Jose M. Satrustegi, Juan San Martin eta Pello Salaburu euskaltzainak izan dira.

### Maiatza

7an, II. Euskal Mundu Biltzarraren, Oñatiko Unibertsitatean egindako irekitze orokorrean, Luis Villasante Euskaltzainburua izan da.

7an, Bilboko Hotel Carltonen , HABE erakundearen "Aurten Bai" ikasturtearen aurkezpenean, Alfonso Irigoyen Bibliotekaria izan da Euskaltzaindiaren ordezkari.

7an, Euskal Herriko Unibertsitatean "Espainiar unibertsitate-argitarapenen erakusketa ibiltaria"n, Pello Salaburu euskaltzainari egotzi zitzaion Euskaltzaindia ordezkatzeara.

15ean, Iruñeko Ordezkaritzan, Jose M. Satrustegiren Euskal testu zaharrak I, liburuaren aurkezpenean, Zuzendaritzak eta Argitarapenen Batzordekoek hartu dute parte.

20an, Donostian, Andu Lertxundi urgazlearen Kareletik filmearen aurkezpenean, Juan San Martin izan da ordezkari.

### Ekaina

11n, HABEko Kontseiluko bilkuran parte hartzen du Juan San Martin Jagon Sailburuak, Erakunde horretan Euskaltzaindiaren izenean, beronen ordezkari denez. Baita urtean zehar Erakunde horrek egin dituen beste zenbait bilera eta ekintzetan ere.

### Uztaila

24ean, Gipuzkoako Foru Diputazioan, Imanol Murua Diputatu Nagusi hautatu berriak audientzian hartu du Euskaltzaindiko Zuzendaritza.

28an, Madrideko Hezkuntza eta Kultura Ministraritzan eta "Dirección General del Libro y Bibliotecas" delakoan, izan dira Juan San Martin Diruzaina eta Juan Jose Zearreta Ekonomi Eragilea, zenbait gestio eta ordezkatzeara.

### Abuztua

6an, Bizkaiko Foru Diputazioan, Jose Alberto Pradera Diputatu Nagusi izendatu berriarekin izan du audientzia Euskaltzaindiko Zuzendaritzak.



26an, Donostian, Eusko Jaurlaritzak antolatutako "Euskal Hitz" erakusketaren inaugurazioan izan da Juan San Martin Jagon Sailburua, Euskaltzaindiaren izenean.

31n, II. Euskal Mundu Biltzarreko euskararen sailari Euskaltzaindiari goi ordezkari bat eman dio hasiera. Luis Mitxelena Iker Sailburuak, euskarak atzerriko euskalariei zor diena azpimarratuz eta eskertuz, agur-hitzak esan ditu eta Luis Villasante Euskaltzainburuak, Akademiak euskara normaltzeko eta araupetzeko egin duen lanari buruz, hitzaldia egin du.

### Iraila

29an, Arabako Foru Diputazioan, Fernando Buesa Diputatu Nagusi izendatu berriarekin izan du audientzia Euskaltzaindiko Zuzendaritzak, bertan, Endrike Knörr Arabako Ordezkaria ere izan delarik.

### Urria

8an, Ajuriaenean, On Manuel Lekuona euskaltzain zenduaren "Gernikako Arbola, gurutze-domina" emankizunean, izan dira Zuzendaritza eta beste zenbait euskaltzain.

30ean, Donostian, Luis Mitxelena euskaltzain zenduaren omenez, Euskal Herriko Unibertsitateak prestaturiko liburuaren aurkezpenean izan da euskaltzain andana bat.

### Azaroa

14ean, Donostian, "Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País" delakoak argitaratzen du, El archivo de los condes de Peñaflores. Juan San Martin Jagon Sailburuak ordezkatu du Euskaltzaindia.

20an, Eusko Jaurlaritzan egindako Euskal Herria liburuaren aurkezpenean izan da partaide eta ordezkari Juan San Martin Jagon Sailburua eta Diruzaina.

23an, Donostian, Hotel Londresen Euskal Irrati Telebistaren 5. mendeurrenean, Juan San Martin izan da ordezkari.

26an, Donostian, Hotel Maria Cristinan, Julio Caro Barojaren omenaldian, Juan San Martin Jagon Sailburuak ordezkatu du Euskaltzaindia.

### Abendua

4ean, Durangon, XXII. Liburu eta Disko Azokaren hasieran, Jose Luis

Lizundia Idazkari-ordeak ordezkatu du Euskaltzaindia.

10ean, Madriden "Real Academia Española de la Lengua"ra Jose M. Areilza sartzean, Endrike Knörr euskaltzainak ordezkatu du Euskal Erret Akademia.

20an, Araba eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketan, Alfonso Irigoyenek eman du saria Euskaltzaindiaren izenarean.

II. Euskal Mundu Biltzarraren amaierara, Gernikako Juntetxean ospatutakora, Euskaltzainburuaren ordezkari erara Alfonso Irigoyen euskaltzaina joan da.

Euskaltzaindiak bere ordezkari zuzen den Jean Haritschelhar eta beste zenbait euskaltzain oso edo urgazleren bidez, Eusko Jaurkitzaren Euskararako Aholku Kontseiluan, urtean zehar egin diren lan-bileretan parte hartu du.

#### 1.4. ZENBAIT EKINTZA ETA GERTAKARI AKADEMIKOREN AIPAMENA

- A. Damaso Intza euskaltzain zenaren ordeez, Patxi Zabaleta izan da hautatua Angelun, Martxoaren 28an, egindako bilkuran.

- Manuel Lekuona euskaltzain zenaren hutsartea iragartzen da Iraileko batzarrean eta Jose Luis Alvarez "Txillardegi" eta Juan M. Lekuona aurkezten dituzte hautagai. Abenduko batzarrean izendatu dute euskaltzain oso Juan M. Lekuona.

- Luis Mitxelena euskaltzain zendu berriaren hutsartea iragartzen da Urriko batzarrean. Jose Luis Alvarez "Txillardegi" eta Ibon Sarasola hautagai legez aurkeztu dituzte Abenduko epe barruan.

- 1987. urtean, euskaltzain urgazle hauek hil dira: Manu Ziarsolo "Abeletxe" eta Jose Estornes Lasa.

- Martxoko Barne Jardunaldietan izendapen hauek egin dira, ohi bezala, bi urtetarako: Luis Mitxelena, Iker Sailburu; Juan San Martin, Jagon Sailburu eta Donostiako ordezkari; Endrike Knörr, Jose M. Satrustegi eta Pierre Charritton, Gasteiz, Iruñe eta Baionako ordezkari. Jardunaldi berberetan berriztatu dira batzordeburu, idazkari eta kideak ere.

- Maiatzaren 27an, Itzultzaile Eskolaren aurrehistoriaz eta ekintza horretan Euskaltzaindiak izan duen partaidetzaz, Juan San Martin Jagon Sailburuak, Jose Ramon Recalde Jaurlaritzako Hezkuntza Kontseilariari zenbait argibide eman dizkio.

- Maiatzeko batzarrean, Euskaltzaindiak Auzitegi Konstituzionalak, erdaraz nekez ari diren euskaldunak euskaraz jardutearen alde, hartu berri duen erabakiaz, zoriondu badu ere, alde batetik; Ekainaren 10eko Hauteskunde Txartelak Nafarroa osoan euskaraz ez zabaltzearen zikoiztasuna salatu du, bestetik.

- Ekaineko batzarrean, bi euskaltzain ohorezko izendatu dira, Jon Bilbao eta Pedro Yrizar.

- Uztaileko batzarrean, urgazle berri hauek izendatu dira: Xipri Arbelbide, Andres Iñigo, Jose M. Jimeno Jurio, Jose M. Larrarte, Abel Muniategi eta Andoni Sagarna.

- Irailaren 9ko Journal Officiel de La République Française delakoan iragarri bezala, Euskaltzaindiak Iparraldean "Association" erara izango du lege nortasuna. Elkarre bezala sei kideko kontseilua izango du, Zuzendaritzan hiru izendatu direlarik, burua, Jean Hiriart-Urruty; diruzaina, Jean Haritschelhar eta idazkaria, Beñat Oihartzabal.

- 1987. urtean, doktoradutza lortu dute: Endrike Knörr euskaltzainak eta Beñat Oihartzabal urgazleak. Bestalde, Jose Migel Barandiaran euskaltzaina Universidad Complutenseko "doctor honoris causa" izendatu dute.


## **2.- IKER Saileko Batzordeak**



## 2.1. HIZTEGIGINTZA BATZORDEA

Batzorde honek hiru azpibatzerde berezi ditu, 1986. urtean egin zen banaketaren arabera, alegia:

- a) OEH - Orotariko Euskal Hiztegia
- b) LEF - Lexiko Erizpideen Finkapena
- d) EEBS - Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistemakoa







### 2.1.1. OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

Atsegin handiz ikusi du Euskaltzaindiak, hainbeste urte itxaron ondoren, Orotariko Euskal Hiztegiaren lehen liburukiaren kaleratzea.

Urte asko izan da Euskal Herria Luis Mitxelena prestatzen ari zen hiztegiaren zain, eta, berandu baino lehen, esan behar da hura hil ondoren, kaleratu dela. Egia da mende honetan R.M. Azkuék, P. Lhandek eta abarrek egin izan dutela alor honetan lan onik. Hala ere ezinbestekoa izan da lan zabalagoa, behar den kritikaz eta jakintzaz burutzea. Euskaraz erabili izan diren hitz guztien sinestamenduak eskaintzen dituen obra galanta. Eta hori da, hain zuzen, Luis Mitxelenak hiztegi honetan ematen duena, euskal hitzen altxorra edo ondarea, euskaraz mendez-mende erabili diren hitz guztiei buruz berri zehatz eta ugariak eskainirik. Hiztegiak 120.000 sarrera izango omen ditu, 785 egile aipatuz, eta 1.500.000 adiera.

Aurkezpena urte honetako Abenduaren 17an egin da, Bizkaiko Foru Diputazioaren Batzartegian, Jose Antonio Ardanza, Lehendakaria; Jose Alberto Pradera, Bizkaiko Foru Diputatu Nagusia; Luis Villasante, Euskaltzainburua; Alberto Ansola, Arabako Diputatu Nagusi-ordea; Jose Luis Telleria, Gipuzkoako Kultur Diputatu; Jose M. Romera, Nafarroako Gobernuaren Ordezkarria; M. Karmen Garmendia, Hizkuntz Politikarako Idazkarria eta Ibon Sarasola, Orotariko Euskal Hiztegiaren Arduradun Eragilea mahaipuruan direlarik.

Bertan, baita ere, Eusko Jaurlaritzaren zenbait Kontseilari; Foru Diputazioetako Diputatuak; Bizkaiko Batzar Nagusietako talde desberdinetako Ahalduak; euskaltzainak; euskaltzain urgazleak; Luis Mitxelena zenduaren semea, Rafael; Orotariko Euskal Hiztegia burutu duen lan taldea; liburukia argitaratu duten Argitaldarien ordezkariak; Unibertsitateetako ikasle-irakasleak eta euskal kultura munduko hainbat euskaltzale aurkezpenean izan dira.

Bizkaiko Diputatu Nagusiaren ongi etorrizko hitzekin hasi da aurkezpena, zergatik eta zertarako biltzen diren azalduz.

Ondoren, Hiztegiaren historia laburra bildu du Euskaltzainburuak, orain 30 bat urte Euskaltzaindiak Luis Mitxelenari R.M. Azkueren Hiztegia zuzendu, gaurkotu eta osatzeko agindua eman zitzaioela aipatuz. Mitxelena berehala lanari lotu zen agindu hori betetzeko asmoz, baina ezarian edo igarri gabe, haren behatz-artean sortzen ari zena zerbait bestelako bilakatu zen, bai luze-laburrean, bai zabalean eta bai sakonean ere, erabat obra berria bilakatu zen. Eta bitartean teknika eta tresna berriak ere azaldu dira, ordenagailua batipat. Luis Mitxelena, berandu xamar, baina aski goiz halere, jabetu zen teknika berriak erabili gabe gaurko egunean ez dagoela honelako lan bat egiterik. Baina hiztegi hau burutzea ez zen posible gertatuko egileak ekonomi aldetik laguntza izan ez balu. 1984ean sinatu zuten akordioa eta hitzarmena Eusko jaurlaritza, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioek alde batetik eta Euskaltzaindiak bestetik; haiek obra hau diruz laguntzera konprometatzen ziren eta Euskaltzaindia obra

egin arazi eta argitaratzen. Nafarroa falta zen, eta hain zuzen, aurkezpen egun berberean, sinatu du Nafarroako Gobernuko Ordezkariek obra honetan parte hartzeko bere atxikimendua.

"Zalantzarik gabe ikerketa mailan euskarari buruz egundaino burutu den lanik handiena dugu hiztegi hau. Ezin utzizko tresna, hizkuntzalari, ikasle, irakasle eta abar euskara errotik menderatu nahi duen ororentzat" esanik amaitu du Euskaltzainburuak.

"Pozez eta atseginez bildu gara gaurkoan, Euskaltzaindiaren gomite-deiari erantzunez, Euskal Herriaren hainbat eskualdetako kideak. Ez da gutxiagotarako, gainera, poz-atsegin hori: egun handia bait da hau, arrotzik arrotzenak ere uler dezakeenez, euskalgintzaren eremu-alorrarekin era bateko edo besteko harremana duen edonorentzat eta gaur seinale, ondorioz, hizkuntz politikaren gurdari aurrera eragiteko eginbidea geure gain hartua dugunontzat ere" esanez hasi du bere hitzaldia Hizkuntz Politikarako Idazkaria den M. Karmen Garmendia andereak.

Aita Manuel Larramendi eta R.M. Azkueren hiztegiek euskararen historian izan zuten eragina aipatu ondoren, kezka bat agertu zuen "urteak aurre egin ahal euskaldun eta euskalarien artean indartuz joan dena: ez ote dugu orain, xamaldan eta tropelka jardunaz, betidaniko euskal hitz altxorra behar bezalako begirunerik gabe tratatzeko arriskua? Eta ez ote du horrek, hiztegi gile eta euskaltzale batzuen eta besteen arteko eritzi desberdintasunez gainera, euskaldun jende osoaren hizkuntz bizitasuna moteldu eta ahulduko?"

Badirudi Euskaltzaindiak arrisku hori oso kontuan izan duela; gaur eskuartean dugun Orotariko Euskal Hiztegia, neurri on batean, belaunaldiz-belaunaldiko kultur ondare honen trasmisioa ahalik eta era osatuenean mantendu eta indarberritzeko tresna egokia gertatuko dela espero dugu denok.

Begi onez ikusten dute Herri Agintariek holako asmo helburua. Eta badute itxaropen sendorik abiaburu ezin egokiagoa gertatuko dela, oraingo idazlan zabal hau, bihar edo etzi Euskaltzaindiak, agindu digun eran, bere Hiztegi hiritartu arau-emalea paratzeko.

1983an taxutzen hasi eta Herri-Aginteek Euskaltzaindiaren 1984ean izenpetu zuten hitzarmena hasia da, azkenik, bere frutuak ematen. "Eman eta zabal beza Hiztegi honek ere, bizkaitar zindoan haritzak bezala, munduan frutua!" esanez amaitu du bere jarduna.

Luis Mitxelenaoren ordezkari hitz egiten ari zela, berari zegokiola egiteko hau, haren Hiztegiaren, eta bizitzako obra nagusienetako baten aurkezpena egitea esanez, hasi du Ibon Sarasola Hiztegiaren Eragileak bere aurkezpena.

Duela 16 bat urte, hasi omen ziren Luis Mitxelena eta Ibon Sarasola, artean hark fitxetan bilduak zituen hitzak liburu bihurtzeko elkarrizketak.

Geroago, 1984.eko Maiatzaren 14ean, Herri-Aginteek eta Euskaltzaindiak sinatutako hitzarmenaren ondoren, Iñaki Segurola, M. Jose

Kerexeta, Gabriel Fraile, Eduardo Valencia, Blanca Urgell, Isabel Arrigain eta Arantza Egia jaun-andereekin lantaldea sortu zuten, euskaldunak, mende eta euskalkietan zehar zein hitz eta esapidez baliatu diren eta nola baliatu diren ahalik eta osoki eta zehatzen azaltzeko asmoz. Horretarako, aurreko hiztegitik bildu dituzten lekukotasun eta aipu guztiak aztertzen eta sistematikoki ematen saiatu dira.

Baina, euskara osoa "alde eta aldiz osoa", deskribatu nahi bazen, ez zen nahikoa orain arteko hiztegitik sistematikoak biltzea. Beharrezkoa zen, orobat, gure literatur tradizioan landu eta ondu zen hitz-ondarearen bilketa zabal eta ahalik osoena burutzea, ezein garai edo euskalki arbuatu gabe, ezein idazle talde edo hitz-mota baztertu gabe. Hots, ahal zen neurrian, tradizioaren irudirik osoena eta neutroena, aberatsena eta orekatuena ematea zen egiteko nagusia, 4.000.000 testu hitzetako "corpus" erakusgarri bat bildurik.

Adibide ugari eman da liburukian hitz edo esapide bakoitzaren nortasunaren berri zabal eta zehatza eskaintzeko. Aldez aurreko lanean bildutako adibideetatik laurden bat edo besterik ez da hiztegitaratu.

Lantaldearen izenean Orotariko Euskal Hiztegiaren prestakuntza, era batera edo bestera, laguntza eskaini dieten guztiei eskerrak emanaz eman dio bukaera bere hitzaldiari Ibon Sarasola jaunak.

Aurkezpena Jose Antonio Ardanza Lehendakariak burutzen du, honako hitzok esanik: "Orotariko Euskal Hiztegiaren lehen liburukia argitaratzeak ere baluke, oso oker ez banago, urteak aurrera joan ahal Euskal Herri osoan halako oihartzun marka geroz eta ozenagoa bereganatzeko arrazoirik.

R.M. Azkueren Hiztegiari, mende hasieran, beharrezko babesa esku-zabalik ematen jakin zuen Bizkaiko Foru Diputazioaren egoitza nagusian bildurik gaude gaur. Eta ezinbestean, zori itsuaren kariatz: lehenaren eta orainaren arteko izatea ez da eten, ekintza honek beronek adierazten digunez: eta aurrerantzean ere, eten ez dadin ahalegindu beharko genuke guztiok. On da guztiontzat, eta are hobe gure bezalako Herri batentzat, etorkizuna lehenaldiaren oreaz moldatzen ikas dezagun.

Urrats sendoa eman nahi da Orotariko Euskal Hiztegia argitara emanaz, hizkuntzaren normaltze-bidean. Eta bidezko da, ondorioz, era batera edo bestera euskarari itxaropenezko geroa ziurtatu nahian ahalegintzen diren herritar guztiak pauso honekin poz hartzea. Eta horiek bakarrik ordea: Hizkuntz egoeraren normaltzea da izan ere, askoren ustean, euskal gizartea bera egituratu, orekatu eta bere onera ekartzeko eginbeharrik handienetakoa. Eritzi honetakoak diren herritar guztiek jakin bezate gogaide dituztela, horretan, Herri-Aginteez.

Luis Mitxelena irakaslea gure artean joana dugun arren, badut itxaropen sendoa lan balios eta eragingarria izango dela Orotariko Euskal Hiztegia. Honen berri ongi dakitenez adierazia digute, oraindik asko ez dela, Luis Mitxelenak ongi erabakita utzi dituela bideak eta erizpide nagusiak. Badago beraz, zertaz itxaropena izan. Ez dezagun ahaztu, halere, lanaren hasieran gaudela, argitalpenari dagokionez. Geroko geroaren

arriskuak lehenagoko nafar idazle ezagunak ongi argitu zizkigunez, gomendio estua luzatu nahi nieke, beharrezko begirunez, Euskaltzaindiari eta Hiztegiaren lantaldeari: emaiozue Hiztegi horri, gorputz eta arima, behar duen dedikazioa. Lastima handia litzateke Euskal Herriarentzat behar den denbora, arreta eta jakite maila garaiz opa ez izateagatik lan eskerga hau amaitu ezinik, argitalpena erdibidean, uztea.

Herri-Agintek eman diezazuela aurrerantzean ere, oraindainokoan bezala, beharrezko diru-babesa: zuek duzue, beraz, hitza! Eta badut itxaropen sendoa, hasieran esan bezala, eginbeharra handia izanik ere, asebetzeko erantzuna ematen asmatuko duzuen.

Herri-Aginte gehienok elkar hartuz eman zaio Euskaltzaindiari, Orotariko Euskal Hiztegia prestatzeko, beharrezko diru-babesa. Poz handia da, alde horretarik, Nafarroa ere elkarlan honetara bildu izana: gaur bertan izenpetutako asmo-agiria da, urrutirago gabe, horren lekuko zuzena. Zorionak Euskaltzaindiari, bere sortarauetako eginbehar nagusi bati hain gogotsu erantzuten saiatzeagatik.

Eskerrak lantaldeari, beharrezko profesionaltasunez Orotariko Euskal Hiztegiaren langintzari bete-betean erantzuteagatik. Eta gorazarrezko oroi-aipamena, eskainiz, bere heriotzerarte Orotariko Euskal Hiztegiaren iturburu eta zuzendari izan genuen Luis Mitxelena irakasleari. Berak erakutsi zigun, inork baino zuhurrago, herri batek bere nortasunean iraun ahal izateko bizi nahi izatea ez dela aski: bizi nahiari bizibideak erantsi behar zaizkiola esan zigun berak, behin baino gehiagotan, ametsetik izate sendoko izamenera igarotzeko. Bide asko dira hartarako baliozkoak; eta haietariko gehienak dira, gainera, beharrezko.

Bide eta bide-zidor gehienetan barrena (edo eta, nahiago baduzue, aldapa askotan gora) saiatutako Mitxelenak bai izan zuen, dena dela, begiko: eguneroko buru lan isila. Bere frutuak iraungo du. Orotariko Euskal Hiztegia ez da agian, jaiotzez azkena izanik ere, azkenik aipatzekoa izango".

Baina aipatutako guztiak zalantzatik gabeko garrantzia badu ere, aurkezpen honen aurretik sinatu den hitzarmenak, Orotariko Euskal Hiztegiaren etorkizunerako eragin aparta izango du; hain zuzen ere, arratsaldean, Euskaltzaindiaren izenean, Luis Villasante, Euskaltzainburuak; Eusko Jaurlaritzaren izenean, M. Karmen Garmendia, Hizkuntz Politikarako Idazkariak; Nafarroako Gobernuaren izenean, Roman Felones, Nafarroako Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak; Arabako Foru Diputazioaren izenean, Jose Ramon Peciña, Kultura Diputatuak; Bizkaiko Foru Diputazioaren izenean, Tomas Uribeetxebarria, Kultura Diputatuak eta Gipuzkoako Foru Diputazioaren izenean, Jose Luis Telleria, Kultura Diputatuak sinatu baitute. Protokolo honen bidez, Euskal Herriko Erakunde Nagusienak eta Euskaltzaindia elkarturik Orotariko Euskal Hiztegia aurrera eramango dutela hitza ematen dute, ekintza honen etorkizunerako, Nafarroako Gobernuaren partaidetza finkaturik gelditzen delarik.

## 2.1.2. LEXIKO ERIZPIDEEN FINKAPENA

- Beloken, 1986.eko Ekainean onartu zen Hitz-elkarketaren aztergai nagusiaren eta sailkapen-bidearen ildotik, Plentzian, Bizkaiko Foru Diputazioaren "Aterpetxean" egin dira, Urtarrilaren 30 eta 31n, Lexikologi Erizpideak Finkatzeko V. Jardunaldiak.

Jardunaldiok Euskaltzainburuaren ongi-etorria eta sarrera hitzez hasi ondoren, hitz-elkartuen sailkapeneko XV. ataleko "Sinbolismo fonetiko eta hots-uztardurak" Mikel Zalbidetik aurkeztutako txostena irakurri da. XVI eta XVII. ataleko "Babalore, Astaputz" modukoak eta "Peru Abarka" erakoak eta XIV. ataleko "Dvandva" elkarteak Mikel Zalbidetik aurkeztutako txostenak eztabaidatu dira lehen egunean.

Biharamunean, XIII. ataleko "Bikoiztapenak" txostena Mikel Zalbidetik aurkeztu eta eztabaida ondoren, 1987. urterako lan-programa finkatu da:

- Hasi berria den urtean zehar VIII. atala, "Menpetasunezko izen-elkarketarena" aztertzeko erabakia hartu du Batzordeak. Honetarako, "Eguzki-Lore" mota bezala izendatu den atal hau, 15 azpiataletan banatu da.

Atalik luzeena eta korapilotsuena denez, 1987. urtean osorik ikustea nahi izan da, guztiz lortu ez bada ere.

Asmo honekin, Zarauzko "Sanzenea" Kultur Etxean, Lexikologi Erizpideak Finkatzeko VI. Jardunaldiak egin dira, Ekainaren 19 eta 20an.

Lehen egunean, "Zati elkarketak", "Multzo elkarteak" eta "Mota elkarteak" izeneko txostenak Miren Azkaratek aurkeztu eta eztabaidatu dira.

Bigarrenegun aldiz, "Konparazio-elkarte exozentrikoak", "-usain, -fama, -kutsu, -itxura" bigarren osagai duten elkarketak Miren Azkaratek aurkeztutako txostena eztabaidatu da. Honez gainera, urteko egutegiaren berriskupena egin da, hurrengo Jardunaldiak Urrian eta Leitzan egingo direla erabakiz.

Jardunaldiok amaitzeko eguerdiko 13etan Hitz-elkarketa-1 liburuaren aurkezpena egin da, bertan Belloke eta Plentzian aztertutako lan eta gai hauek agertzen direlarik:

- Hitz-elkarketa lantzeko erizpideak.
- Hitz elkartuen sailkapen-saioa.
- Bikoiztapenak.
- "Dvandva" elkarteak.
- Sinbolismo fonetiko eta hots-uztarduraz sorturiko hitz elkarketak.
- "Astaputz" moduko hitz-elkarteak.
- "Peru Abarka" elkarte-mota.
- Adibidetegi bilduma.

VII. Lexikologi Jardunaldiak, Leitzan, AEK-ren barnetegian egin dira, Urriaren 24 egun osoa, bete beterik harturik.

Lehen saioan VIII.5 azpisailari ekin zaio "-aurre, -oste, -gain, -atze" bigarren osagai dituztenei buruzko txostena eztabaidatuz.

Bigarrenean, ordea, VIII.7 azpisailari "barne-, goi-, azpi-, gain-" lehen osagaidunak aztertu dira.

Eguerdi ostean, VIII. 13 azp. saila "-bide, -gai, -aldi, -ume" bigarren osagai dituztenei buruzko txostena tratatu da.

Jardunaldi hauen laugarren eta azken saila VIII.12 izan da "-erdi, -laurden,..." bigarren osagaidunak.

Azkenik, 1988rako jardunbidearen birmoldaketa finkatu da.

### 2.1.3. EGUNGO EUSKARAREN BILKETA-LAN SISTEMATIkoa (EEBS)

1987.eko Urtarrilean, Plentzian egindako euskaltzainen bilkuran, Batzorde honen plangintza proposamena onartu da izenburu honekin, alegia, "Lexiko berrikuntza eta bilketa-lana bideratzea" hiru atalekin: 1. Abiadurak. 2. Oinarrizko erizpideak. 3. Jardupideak, 3.1. Zer bildu, 3.2. Noiztik noizartekoak bildu, 3.3. Nola bildu, 3.4. Nork bildu, 3.5. Bilketa lanaren bideratzea, 3.6. Lana noiz burutu eta 3.7. Bateratzeko egitaraua.

Batzorde honen talde osoak edo eragileak zenbait lan-bilera egin ditu, lexikografiaren azterketa batzuri hasiera emanez: testu ezezagunak, adibidez, sermoi nafarrak, ahozko hizketak, itzulpen eta komunikabidetako hizkera; tratamendu informatikoa, ondoren. Abiapuntu erara datuak biltzeko definizioa, fitxategi bibliografikoaren azterketa eta testu grabaketaren problematikaz jardun du.

Eginkizun honen azken punturik garrantzitsuena zera da, bilketa-lan honetan parte hartu nahi luketen elkarte eta lan-taldeekin harremanetan jartzea.






## 2.2. GRAMATIKA BATZORDEA

Urtean zehar Batzorde honek hamabost bilera egin ditu.

Maiatzerarte gai nagusia Euskal Gramatika - Lehen Urratsak-II liburua osatu eta burutzea izan da, atzeraturik edo behar adina landu gabe zeuden gaiak (zatiak, alderdiak, puntuak) eztabaidatuz. Maiatzaren azkenetan Arraten egindako Jardunaldietan jasotako oharrak kontutan izanik, zenbait gai berriro eztabaidatu eta aztertu ditu Batzordeak.

Aipatu lanen ondorioz, bi liburuki kaleratu ditu Euskaltzaindiak: Euskal Gramatika - Lehen Urratsak -I (Eranskina). Lehen argitaratua zegoen "Hitz ordena" zehatzago eta sakonago aurkeztu, "-ko atzikiaren funtzioak eta esanahiak", "Hitz elkartuak" eta "Deklinabide taulak" gehitu dizkiete lehen liburukian kaleratutako gaiei. Bigarren liburua Euskal Gramatika - Lehen Urratsak-II oso osorik aditzari eskaini diote.

Bestalde, aurrera begira burutzeke dauden beste betebeharrak batzuek ere begiratu ditu Batzordeak, besteak beste, aspaldiko asmoa pentsatzen zuten Orotariko Euskal Hiztegiaren "corpus"a gramatika ikerketan, informatikaren bidez, erabil zitekeen ziurtatzea. Horretarako Alan King batzordekideari eskaini zaio lana, behar diren saioak egin ditzan.



Urtean zehar batzordekideek aurkeztu eta taldean eztabaidatu eta landutako txostenak, hauek izan dira:

Patxi Goenagak, "Baldintzazko adizkiak"; M. Pilar Lasartek, "Euskal Deklinabidea"; Miren Azkaratek, "Hitz elkarketa"; Andolin Eguzkitzak, "Aditz trinkoen agintekera"; Alan Kingek, "Adizki jokatuen erabilera"; Jose M. Larrarte-Andolin Eguzkitzak, "Aditz aldien egokiera"; Andolin Eguzkitzak, "Perpauk konplexuen ikerketarako proposamendu xume bat"; Patxi Altunak, "Juntagailu kopulatiboak"; Beñat Oihartzabalek, "Koordinazioari dagokion atalaren aurkezpidea".

## 2.3. DIALEKTOLOGI BATZORDEA

Batzorde honek bi azpibatzerde ditu:

### E H H A

1987, Inkestagintza

LURRALDEA	HERRIA	KODEA	A M A I T U T A	E G I T E N	
LURRALDEA	GETXO	1.1	+		
	LEIOA	1.2	+		
	ZOLLO	1.3		+	
	SONDIKA	1.4		+	
	LAUKIZ	1.5	+		
	ETXEBARRI	1.7		+	
	ZARATAMO	1.8	+		
	OROZKO	1.9	+		
	MUNGIA	1.10	+		
	BIZKAIA	ZEBERIO	1.11	+	
		FIKA	1.13	+	
		LARRABETZU	1.14	+	
		ARRIETA	1.15	+	
		LEMOA	1.16	+	
		DIMA	1.17	+	
		ZEANURI	1.18	+	
		ERRIGOTTI	1.19	+	
		MAÑARIA	1.23		+
		OTXANDIO	1.24	+	
ELORRIO		1.31	+		
ONDARROA		1.35		+	
GIPUZKOA		ARAOTZ	3.4		+
	OÑATI	3.5		+	
	BERGARA	3.6		+	
	URRETXU	3.11		+	
	LEGAZPI	3.12		+	
	ZESTOA (ARRUA)	3.15	+		
	AZPEITIA	3.16		+	
	GETARIA	3.17	+		
	ATAUN	3.20		+	
	ERREZIL	3.21	+		
	AIA	3.22	+		
	ORIO	3.23	+		
	ASTEASU	3.24	+		
	IKAZTEGIETA	3.25		+	
	TOLOSA	3.27		+	
	DONOSTIA (Ibaeta)	3.28	+		
	LASARTE	3.29	+		
	ANDOAIN	3.30	+		
	ELDUAIN	3.31	+		
HERNANI (Epele)	3.33		+		
PASAI	3.34	+			
OIARTZUN	3.35	+			
HONDARRIBIA	3.36		+		



### 2.3.1. EUSKALKI-IKERLANAK

Batzorde honek Maiatzaren 22an egindako bilkura nagusian, bere lanen egitarau berria aurrera eramatea erabaki du. Monografiak, hau da, herri edo herrialde baten hizkeraren azterketa taulak, norberaren esku uzten du. Euskal Herriko Hizkuntz Atlas Linguistikoaren programa Batzorde honen eremukoa izan arren, autonomia osoz ari da, nahiz eta lantalde zuzendariak batzordekide izan.

- Bibliografia: gai honetaz, han-hemenka zer egin den, bereziki tesina gisara.

- Hizkuntza kontzientzia, nahiz Atlasean honetaz zerbait egiten ari.

- Gai berezituetao monografia dialektalak: arrantza, teknologia, eta abar.

- EAEL eta beste atlasetan egin dena ikertu, alferrikako lanik ez egiteko.

- Ahozko dokumentuetan espezializatzea izango litzateke beste asmoetariko bat.

Batzordekideek bestalde, zenbait asmoren erabilpena aurkeztu dute, hots:

. "Hitzak eta gauzak", deitutako eskola; hizkuntza mintzatuaren lexiko bilketa; lexikoaren ikertzea semantikaren alorretik; dialektologia lanen informatizazioaren beharra; transkribapenen arazoa; morfologia eta joskera dialektologia esparruen ikerketa; aditzen erregimena , eta abar.

Halere, ardatz nagusi erara, ahozko iturriek emaniko "thesaurus" lexikografiko baten eraikitzea ikusi dute. Baina berehalako lanak, bestalde, bibliografia eta gai galdekizunak dituzte.



### 2.3.2. EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA (EHHA)

1987. urtean bi lan desberdinetan aritu da Atlasgintzarako lantaldea:

1.- Inkestagintza. Urtearen hasieratik murgildu da lantalde osoa inkestagintza lanean, jarraian ikus daitekeenez. Aurrerakuntza nabaria izan da, batez ere, lantaldea gorpuztu egin baita.

Baina aurrerakuntza uka ezinezkoa bada ere, zenbait akats eta eragozpen aipagarri gertatu zaizkio lantaldeari. Lehenik, lan tresnen matxurak. Grabatzeko tresnek egun osoz eta ia eten gabeko lanean dihardutelako uste eta nahi baino hondatze gehiago ekarri dizkiete. Gainditu ezinezko akats bihurtzen ari zela ikustean, grabagailu berriak erostera jo dute lantaldekoek. Bigarrenik, burutzen ari ziren inkesten egokitasun eta homogeneitatea zaindu beharrak ere, zenbait azterketa egitera bultzatu du Atlaseko Zuzendaritza Teknikoa.

Helburu horrekin hiru barne-azterketa desberdin burutu ditu lantaldeak urtean zehar:

a) Maiatzean Xarles Videgain jaunak aurkezturiko azterlana lexikoari buruzkoa izan da. Bertan jadanik inkesta burutua zegoen zenbait herritan eta era desberdinetako itaun batzuri emandako erantzunen zuzentasuna eta zehaztasuna ikuskatu dute.

b) Urrian, beste miaketa berri batzu aurkeztu dira inkestagileen bileran:

Lehena, Gotzon Aurrekoetxeak burutua (EHHA): inkesten 2. azterketaldia, zeinetan lexikoaz landako emaitzez aritu izan dena, hots, morfologia, sintaxia eta fonetika arloetako erantzunen egokitasunez, hain zuzen ere.

Bigarrena, lan bikoitza, Xarles Videgainek: "Oharrak inkestagintzari buruz" eta Gotzon Aurrekoetxeak: "EHHA: inkesta eta zintak". Gorago aipatutako bi lanetan inkestagintzaren kalitateaz ari izan badira, oraingo biotan kantitateaz ari dira, hau da, galdetzen denaren inguruneaz. Kontutan hartu diren alderdiak bi izan dira: hizkuntzari buruzko oharrak eta entziklopediari buruzkoa. Berauetan itaunaren inguruan bildutako hitz interesgarriak, egitura sintaktiko ohargarriak, erregistro-mailari buruzko oharrak, esaera eta gonparaketak. Hauetan, lekukoei esperientziak erakutsitako jakitea, narrazio etnografikoa eta sineste edo praktikak erantsia azaltzen da.

Bigarrenak, inkesta-puntu ezberdinetako inkesten iraupena aztertzen du. Oso desberdina gerta daiteke herri batetik bestera grabaketaren luzaera: Getaria (33 ordu), Zeanuri (19 ordu), lekukoaren izaeraren arauera.

Azterketa hauek inkestagile bakoitzak beste lankideen lan-moldea

jakin dezan burutuak izan dira.

Lanok erakusten dutenez, bestalde, orain arteko lan-multzoa egokitzat eman daiteke, zenbait ezberdintasun ageri bada ere.

2.- Informatizapena. Bestalde inkestagintzatik kanpo proiektua informatizapenean aurreratu da.

Alor honetan arazorik larriena Euskaltzaindia eta "Centre National de Recherches Scientifiques" (CNRS) arteko hitzarmena bideratzea izan da. Hitzarmen hau ezinbestekoa da, Estrasburgoko iker-taldearekin diren harremanak ofizialtzeko, bi Erakundeen artekoak bihurtuz.

Bion bitartean funtzionamendu-programa laburrak burutu eta praktikan jarri ditu informatikalariak, honez gero, galdekizun osoa eta lan-fitxategi desberdinak informatizatu direlarik, nahiz eta Estrasburgon egin behar den programa nagusia burutu gabe gelditu.



## 2.4. ONOMASTIKA BATZORDEA

1987. urtean II. Onomastika Jardunaldiak egin dira, oraingoan, Urduña hirian, Bizkaiko Diputazioaren babespean.

Licenciado Andres de Pozaren De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas liburuaren laugarren mendeurrena ospatuz antolatu dira Irailaren 24tik 26ra bitartean.

Ostegun eta ostiralean, hasi Gaskoinan eta Barakaldorainokoak, hogei txostengilek, Biarno, Nafarroa, Errioxa, Araba, Urduña eta beste zenbait euskara galdutako inguruetako toponimia ikertu dute. Tartean Ipar Ameriketako euskal onomastika ere sartu delarik.

Larunbatean, Avellanedako Juntetxean, Enkarterrietako toponimiari buruzko bi txostenekin eman zaie Jardunaldi hauei bukaera.

Ekintza hauen inguruan, II. urteko Mapagintza Erakusketa ireki zen Urduñako Udal Bibliotekan, gero Gernika, Leitza, Zarautz eta Iruñean jarraipena izan duena.

Ohizko lanei jarraituz, Udalen euskal izenak ofizialtzeari buruz, herri hauetako erizpen argibideak eskaini dira: Leaburu-Gaztelu, Ea, Lantziego, Baños/Mainueta, Oion eta Sopela.

Bestalde, auzo, kale eta toponomastika zenbait itauni erantzun zaie, alegia: Dima, Ea. Sopena/Garape, Irun eta abarri.

Foru Diputazio eta Jauriaritzako zenbait kontsultari ere erantzun zaie. Baita ere, "Gran Bilbao" deritzan metropoli eremuaren euskal toponimoaz ikerketa saio bat egin da. Batzordeak euskal mendateen lehen zerrenda bat ere prestatu du.

Onomastika Batzordea atzerriko Jardunaldi interesgarri baten ordezkaria izan da. Hain zuzen, Ricardo Ciervide batzordekidea joan bai da, Abenduaren 10etik 13ra, Alemanian egindako "Colloque International pour la préparation du Dictionnaire historique des noms de famille romans" delakora.

Gasteizko Ordezkaritzan bestalde, historia iturrietako toponimia zerrendagintza lana, Batzordearentzat, talde batek, hasi du, M. Angeles Libano irakaslearen zuzendaritzapean.

Andres Iñigo urgazle berria, Abenduko batzarrean izendatu du Euskaltzaindiak, Onomastika Batzordeko kide.

Eguneroko lanei jarraituz, pertsona izenei buruzko erizpide eta argibideak eman dira, baita deitura edo patronimiaz ere.

Batzorde honen eremuko liburuak Argitarapen Sailean aipatuko dira.

1987. urteko Batzordearen lanik garrantzitsuena, seguru asko, "Nafarroako Herri Izendegigintza" izan da, bertako Gobernu edo Diputazioak eskaturik. Lan honen prestaketa ardura Jose M. Jimeno Jurio batzordekideari egotzi zaiou.

Lehen eremukoa, alegia, egungo eremu euskalduneko berri, herrixka eta auzo gotorren zerrenda hauek hasi eta burutu dira, Irailetik urtea amaitu arte: Aezkoa, Erroibar, Esteribar, Luzaide eta Baztan-Bidasoa eskualdetakoak; Basaburua, Anue, Ultzama, Imotz, Larraun eta Araitz ibarrak hartzen dituen eskualdea ere prestatzen hasi delarik. Urte t'erdi gutxienez eramango duen lan horretarako Batzordea Iruñean, Urduñan, Leitzan eta Durangon bildu da lan-bilera luzeetan.

Batzordeak, 1987. urtean Euskal Herrian zehar, zazpi bilkura arrunt egin ditu, ikerketa, kontsulta eta beste gai asko aztertutik.

Jose M. Jimeno Juriok Guía para la recogida toponímica del País Vasco liburuxka prestatu du, beste zenbait batzordekideren oharrez osotutik.

M. Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaria, Jose Luis Lizundia eta Juan San Martin batzordekideak, Andres Urrutia Ondarroako notari eta Euskararen Aholku Batzordekide denarekin bildu dira euskal deituren grafia eta forma ofizialtzeko asmoz. Onomastikako azpisail honen arazoa grafia hutsezkoa ez denez, deituren nomenklatorra burutu beharra ikusi dute.

### **3.- JAGON Saileko Batzordeak**



### 3.1.1. LITERATURA BATZORDEA

Euskal literatura klasikoa aztertzea izan du Batzordeak helburua. Hau dela eta, igaz hasitako lanari jarraipena eman dio.

Bi lan mota ezberdin berezi daitezke Batzordearen lanen artean:

Lehena, Beraskoitzeko Leizarragaren Testamentu Berriaren itzulpena grekozko originalarekin parekatzeko beharrezkoak ziren ezaugarriak nagusienak aztertu eta sakontzea ezinbestekoa izan da, gonparaketa behar den erara egitea baitzen helburua.

Gramatika zein lexikologi gaiak sakondu behar izan ditu Batzordeak horretarako, hainbat liburu berrirakurriaz, hala nola: Aristotelesen Poética eta Retórica; Pelayo M. Fernandez Estilística; E. Basaberen Manual de Estilística Latina; Ithurry, Lafitte eta Abbé Arotzarenaren Grammaire Basque; Resurreccion M. Azkueren Morfología Vasca; Lafonen Le système du Verbe Basque au XVI siècle; eta Altuberen Erderismos.

Bigarrena: Leizarragaren itzulpenaren azterketari ekin dio Batzordeak, grekerazko testuaz gonbaratzeko asmoz.

Testamentu Berria oso osoan aztertzea luzeegia gertatuko zaionez, San Marcosen Ebanjelioa aukeratu du Batzordeak, dagozkion oharrak eta eranskinak egin dizkiotelarik, eta irakurketaz baliaturik, lexiko bikoitza ere, euskarazkoa eta grekerazkoa, egin du Batzordeak. Honekin batera, noizbait Ebanjelio honen argitarapenarekin batera hura ere eskaini daitekeelarik.

Ondorioz, euskaraz hiru sintaxi-tipo daudela esan daiteke: Uraloaltaikoa, Greko-kaukasikoa, Neo-sumerikoa eta hirurok agertzen dira Leizarragaren itzulpenetan zuzentasun osoz erabiliak.

Bestalde, euskal aoristoaren erabilera eta esanahiaz ondo baino hobeto aztertzeke eta ikasteko aukera izan dute batzordekideek, grekeraz ere agertzen baita. Eta aldi berean, aditzaren aspektuak ere aztertu ditu Batzordeak.

#### Txostenak:

Urtean zehar aurkeztu eta eztabaidatutako txostenak hauexek izan dira:

- Federico Krutwigek, "Greziako literatura".
- Federico Krutwigek, "Zenbait adizkiren arteko desberdintasunak".
- Federico Krutwigek, "Tragedia eta komediaren arteko desberdintasunak".
- Jon Gotzon Etxebarriak, "Azentuari buruz".
- Alfonso Irigoyenek, "Euskara baturako proposamenak".
- Federico Krutwigek, " 'Ortizilare' hitzaren etimologiaz".

- Alfonso Irigoyenek, "'Igande' hitzaren etimologiaz".
- Alfonso Irigoyenek, "Bizidunen deklinabideaz".
- Alfonso Irigoyenek, "Metrikari buruz".
- Alfonso Irigoyenek, "V. Garcia Yebra: "La traducción en el nacimiento y desarrollo de las Literaturas" artikulua azterketa".
- Juan Luis Goikoetxeak, "Grekerazko eta euskarazko prosaren rytmoak".
- Alfonso Irigoyenek, "Gramatika (aditzari buruzko lana)".
- Federico Krutwigek, "Herri primitibuen bi hizkuntzak. Komunikazio-hizkuntza normala eta Jainko edo hildakoekin erabiltzen dena".
- Federico Krutwigek, "Stylistika eta aspektuak".
- Alfonso Irigoyenek, "Antzinako euskara nolako izan ote zen (XVI. mendearen aurrekoa)".
- Federico Krutwigek, "Stylo orientala eta stylo sumerioa".
- Manu Erzillak, "Aristotelesen poetika"
- Alfonso Irigoyenek, "Euskarazko postpositioneak".
- Federico Krutwigek, "Comentario a las traducciones del Nuevo Testamento: Evangelio de San Marcos".
- Federico Krutwigek, "Hizkuntz kultoen ortografia".
- Alfonso Irigoyenek, "Hizkuntzaren aldaketak gramatika eta hiztegien eraginez".
- Federico Krutwigek, "Europako literatura".

Lan hauek nazioarteko beste ikerlari batzuren lanekin batera, argitarapen batetan kaleratzeko asmoa azaltzen du Batzordeak.

### 3.1.2. LITERATURA SARIKETAK

Euskaltzaindiari erakunde eta elkarte askotatik eskatzen zaizkio epaimahaikideak izendatzea, batez ere, literatura lehiaketetarako.

1987. urtean hurrengook azpimarra daitezke:

. Eusko Jaurlaritzak antolaturiko Euskal Letren Merezimenduzko Sariketarako Luis Mitxelena hautatu da, saria Eusebio Erkiagak irabazirik.

. Gobernu berak babesturiko Literatura Lanak Sortzeko lehiaketa erabakitzeko, Juan Luis Goikoetxea urgazlea eta Literatura batzordekidea izendatu izan da.

. Gobernu Zentralak antolaturiko sariketetan edo lehiaketetan, jaun hauek ordezkatu dute Euskaltzaindia:

- Endrike Knörrek, "Premio Nacional de las Letras Españolas".
- Federico Krutwigek, "Premio Nacional de Literatura".
- Xabier Kintanak, "Premio Nacional de Traducción".
- Federico Krutwigek, "Concesión de Ayudas a la Creación Literaria".

. Bizkaiko Aurrezki Kutxak babestutako sariketa bietarako epaimahai hauek izendatu dira:

- "Txomin Agirre" eleberrirako: Jean Luis Davant, Eusebio Erkiaga eta Jon Gotzon Etxebarria.

- "Mikel Zarate" saiorako: Pierre Charritton, Alfonso Irigoyen eta Federico Krutwig.

. Euskaltzaindiaren Herri Literatura Batzordeak antolaturiko "Xenpelar" bertso paper sariketa erabakitzeko: Antonio Zavala, Jesus M. Etxezarreta, Jose M. Aranalde, Mitxel Itzaina, Juan M. Lekuona eta Abel Muniategi. Lehen sariduna, Joseba A. Santxo Uriarte, "Olgeta magikoa" bertso bildumarekin izan da; Joxe Aierbe Iraolak, bigarren eta hirugarren sariak jaso dituelarik.

. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak sortutako "Orixe" itzulpen saria erabakitzeko, Pello Salaburu euskaltzaina izendatu du epaimahaikide.

. "Asociación de Amigos de Unamuno" elkarteak, Unamunori buruzko prentsa idazlanen sariketarako, Juan San Martin euskaltzaina izendatu du epaimahaikide.

. Zarauzko Udalak sortutako "VI. Lizardi" haur ipuin sariketarako, Jose Antonio Mujika urgazlea hautatua izan da.





### 3.2. HERRI LITERATURA

Batzorde hau Euskaltzaindiak Martxoan, Angelun, egin dituen V. Barne Jardunaldien ondoren hasi da berriz lanean, urtean zehar zortzi bilera egin dituelarik.

Batzorde honetako partaide gehienak, Euskaltzaindiak Bertsolari Txapelketak antolatzen zituenean, lan horretan aritutakoak dira. Baina bertsolariak Txapelketak beren eskuetan hartu dutenez gero, Herri Literaturaren beste alderdi batzu lantzen emango ditu bere ahaleginak: antzerkiak, pastoralak, herri poesia, bertsolaritzaren ikerlan teorikoa, herri narratiba, herri kazetaritza, balada, erromantzea eta abar.

Hasteko, ahantzirik zeuden sariak suspertu ditu: "Xenpelar" ohi zen erara bertso paperentzat eta "Fernando Amezketarra" ixkirimientzat.

Oinarriak egin ondoren, udaldian iragarri da eta Azaro arteko epea eman lana aurkezteko. Bi sariok oso erantzun desberdinak izan dituzte, "Xenpelar" sariak oso erantzun ona izan duen bitartean, (40 lan aurkeztu dira), "Fernando Amezketarra" sariak ez du erantzunik izan. Agian, bertso paperak Euskal Herrian errotuta dagoen ohitura delako eta bigarreanean, aldiz, lan handiegia eskatzen zelako, ehun txiste edo ixkirimiri aurkeztu behar baitziren.

Goian aipatu erara sakonki aztertzeke dauden gaien artean, Herri Literaturaz jardunaldi batzu egitea oso interesgarritzat jo du Batzordeak. Horretarako gaiak zehazten eta hizlari egokiak aurkitzen eman ditu zenbait bilera.

Azkenik eta aurrekoarekin loturik, Herri Literaturak hainbeste zor dion On Manuel Lekuonaren oroimen eta omenez, datorren urterako saiakera lehiaketa bat iragartzea eskatu dio Batzorde honek Euskaltzaindiari.



### 3.3. ETSAMINEN BATZORDEA

Azken urteotan egin den arabera, Batzorde honen lana murriztuz joan da, Euskaltzaindiak bere garaian hartu zuen erabakia beteterik. Dena den, oraindik, guztiz amaitu gabe eta aldez aurretik hitzartutako zenbait azterketa berezietara bidali ditu Euskaltzaindiak ordezkariak.

Bi eratako azterketak izan dira:

- Herri Administraritzak deituriko azterketetan ondoko zerrendan ikus daitekeenez, hots:

<u>Noiz</u>	<u>Non</u>	<u>Lanpostua</u>	<u>Azterketa</u>	<u>Puntuaketa</u>
87-1-9	BILBOko Udala	Paratzailea	Aukerazkoa	0-3
87-2-18	BILBOko Udala	Adm. Laguntzailea	Aukerazkoa	0-7
87-2-24	DURANGOko Ud.	Itzultzailea	Nahitaezkoa	0-10
87-4-1	BIZKAIKO Batz. Nag.	Itzultzaile Teknikaria	Nahitaezkoa	0-10
87-4-7	BARAKALDOko Ud.	Adm. Laguntzailea	Aukerazkoa	0-3
87-4-29	PORTUGALETEko Ud.	Telef.-Itzultzailea	Nahitaezkoa	0-10
87-6-5	BARAKALDOko Ud.	Tek. Adm. Orokorra		
87-6-10	BIZKAIKO Irak. Esk.	Bizkaierazko froga		
87-10-9	URDUÑAko Ud.	Adm. Laguntzailea	Aukerazkoa	0-6
87-10-20	URDUÑAko Ud.	Administraria	Aukerazkoa	0-6
87-12-28	OROZKOko Ud.	Itzultzailea	Nahitaezkoa	0-10

- Orain dela 6 bat urte Euskaltzaindiak D-B maila azterketak egitea bertan bera utzi zuen, zeregin hori Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren eskuetan utziz. Baina Iparraldean zeregin hori egiteko ordezko egokirik aurkitu ez duenez, aurren ere bi deialdi egin behar izan ditu. Biok Baionak egin dira: lehena, Ekainaren 23an, 11 azterketari aurkezten direlarik. Bigarrena, Urriaren 31n eta bertan 5 aurkeztu dira.




### 3.4. OINARRIZKO EUSKARA

Jagon Saileko eginkizun honen Batzordea joan den Martxoaren hondarrean, Angelun egindako V. Barne Jardunaldietan, suntsitu da. Izan ere, Euskaltzaindiak uste izan du xede propioen umea burutua zela, alegia, eta Imanol Berriatu batzordeburu eta arima izan zenaren helburuek hedapen eta normalizapena lortu dutela.

Azken fruitu erara, Oinarriak, Xabier Amuriza urgazlearen irakurgai sorta oparoa argitaratu du Batzorde honek.

Xabier Amuriza  
**OINARRIAK**  
Ikaslegin izenaz argitaratuak



3. maila  
Kazetaritza saila



## **4.- Akademi Zerbitzuak**





#### 4.1. ADMINISTRALGOA ETA BULEGOAK

Euskaltzaindia beronen Egoitzatik zuzenki eta Ordezkaritzetatik ere jendearekiko harreman eta beste biderapen arazoei irteera ematen ahalegintzen da.

Urtetik urtera ugaltzen doaz harremanok. Hauetariko batzu azpimarratzekotan, beste hizkuntza akademiekin ditugunak, batez ere, Estatu eremuko "Real Academia Española de la Lengua", "Institut d'Estudis Catalans", "Real Academia Galega" eta "Academia de la Llingua Asturiana". Bestelako unibertsitat edo/eta kultur erakundeekin ere, elkarlan zenbait egin dira.

Euskararekiko egoera, jatorri, ikerketa, normalizapen eta erakundetzaz, kontsulta, itaun eta posta harremanak, eguneroko zeregin bihurtu dira, bai Euskaltzaindiaren zuzenean, beronen funtzionamendu, batzorde, egiteko eta abarri buruz. Itaun hauek, Euskal Herritik zein atzeritik etorritakoak, lan premiatsunea suposatzen dute Egoitzarentzat eta baita Ordezkaritzentzat ere, azken hauei Arautegiko 34. artikulua egotzen bait die, gehienbat eginkizun hau.

Idazkari-ordetzak eramanean dituzte urtean zehar jardunaldi, bilkura, ospakizun eta Euskaltzaindiaren égitarau ororen plangintza, ibilpide eta eraketak, Ekonomia, Biblioteka eta Argitarapenen Eragileen eta administrarien laguntzaz baliaturik. Batzordeek ere eredu honen arabera funtzionatzen dute, nahiz eta, bateren bat, Gramatikarena, Ordezkaritza batetik, Donostiakotik zuzenean eramanean izan.

Administratiboa erakundeekiko harremanak direla eta, garrantzitsuena, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritzarekin duena da. Euskal Komunitate Autonomoan erakunde amankomuna bera baita, euskararen ofizialtasunaren alorrean, alegia. Nafarroako Diputazio edo Gobernuarekin harremanak asko ugartu dira, beronek gehienetan Ordezkaritzara jotzen baitu, kontsulta eta argibide eske. Beste hiru Foru Diputazio eta zenbait udalekin ere, harreman eta argitasun eske-emate ugari izan ditu. Gobernu Zentraleko Hizkuntz eta Kultur Ministraritzarekin ere, harreman zuzen eta garrantzitsuak izan dira.

Akademi zerbitzuentzat azkenik, ezinbestekoa da Euskaltzaindiaren Egoitza berria aipatzea, bai zerbitzu nagusiak, hots, Idazkari-ordetza, Ekonomia, Biblioteka-Artxibo eta Argitarapenak, etxe berean elkarlanean zentralizatzeko eta bai, IKER eta JAGON lan gehienak eroso kokatzeko. 1987. urtean, Plaza Barriko etxe barru osoa hustutzea erabaki zen, berrien berritan, proiektu berria behingoz burutzeko.



## 4.2. "AZKUE BIBLIOTEKA" BATZORDEA

Orain arteko ohiturari jarraituz, euskara eta euskal kulturarekin zerikusia duten liburu, aldizkari eta bestelakoak lortzen ahalegindu da Euskaltzaindiaren "Azkue Biblioteka".

Aurten 7.665 sarrera erregistratu dira, 6.075 dohainik edo trukean eta 1.590 erosiak izan direlarik.

Honez gain, 498 tomo koadernatu dira, gehienak aldizkari eta egunkari bildumak, tartean liburu zaharrak ere direlarik, azken hauek koadernaketaren bidez konpontzen hasi baita "Azkue Biblioteka".

Edozein bibliotekatan gertatzen eta gertatu behar duenez, 1.154 irakurle eta 20 ikerlari izan dira, 1.343 titulu eskatu dute eta 16.302 fotokopia atera zaizkie.

### Aparailu berriak eta informatizazioa

Aipatu fotokopia zerbitzua hobetu nahian, SCHARP-SF-8.100 fotokopiagailu berria erosi da Bibliotekarako.

Informatizazio alorrean, aldiz, atzeratuago dabil, nahiz eta informatikalari eta IBM etxekoekin zenbait bileratan beharizanak agertu badira ere.

Mikrofilmeen alorrari, gehiegi luzatu gabe, aterabide egoki bat aurkitu behar zaio. Aurten El Liberal Guipuzcoano (1821-1823) eta El Correo Español-El Pueblo Vasco mikrofilmaturik lortu dira. Honez gain, Juan Carlos Gerraren Biblioteka eta Artxiboa mikrofilmatu dute Bergarako mikrofilmategian kopia bat "Azkue Biblioteka"rako utziz.

Bestalde, Diputazioen Artxibategietan, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan dauden Bonaparteren fondoak mikrofilmatzeko baimena eskatu zaie Herri Erakundeei.

Mikrofilme saila ugaltzen doanez, Maiatzean Euskaltzaindiak Arraten egindako bileran, Biblioteka Batzordeak plangintza osoa aurkeztu eta Erakundean onartua izan da.

### Artxibo lanak

"Azkue Biblioteka" izenaz ezagutu arren, Euskaltzaindiko Artxibategia ere berau denez, eguneroko lanek uzten dituzten hutsarteetan, artxibategi lanetan aritu dira Bibliotekako lankideak, besteak beste, Resurrección M. Azkueren artxibo zaharra eta musika-artxiboa katalogatzen hasi, eta, musikazkoa amaitu ere bai.


Artxibategiko ondareetan, gai edo sail berezi batzu ere osotzen hasi

da, adibidez, euskaltzain oso eta urgazleen biografi eta historia zehatza (izendapena, sarrera hitzaldia, noren ordeiz izendatua, eta abar), eta Euskaltzaindiaren historia zehatz eta oso bat burutzeko dokumentu bilketa. Bibliotekan dagoen ondarearen agerpen egoki eta erabilkorra egin asmoz, aspaldian hasitako lanak, jarraipena izan du urte honetan, horretarako katalogo bereziak osatuz, adibidez: Euskal Dotrinena, Luis Luciano Bonaparteren bibliografi osoa, Resurrección M. Azkueren musika-artxibategia, Telesforo Monzonen Liburutegiarena, Jokin Zaitegiarena.

#### Bestelako elkar-langintza

Euskaltzaindiak Onomastika Batzordearen bidez, Urduñan antolatu dituen II. Onomastika Jardunaldietarako, Kartografi Erakusketa eratzeko eskatu zion "Azkue Biblioteka"ri, erakusketa hau behin antolatuz gero, Gernika, Leitza, Zarautz eta Iruñean ere eskaini delarik. Gertakizun hau dela eta, Valladolideko "Real Chancillería"n, Euskal Herriaz dauden original guztien negatiboak erosi dira. Espainiako "Instituto Geográfico Nacional" eta Frantziako "Institut Geographique National" direlakoetan Euskal Herri eta inguruaz dauden mapa katastral eta geologikoekin batera.

Aipatu beharra dago baita ere, Herri Erakundeekin izandako harremanak, batez ere, II. Euskal Mundu Biltzarraren inguruan, Urriaren 6tik 25era, Bilboko Museo Historikoan antolatu den haur literatura didaktikoaren erakusketa dela eta, edo "Euskal Hitz" erakusketarako mailegututako argazki, dokumentu eta liburuak.



#### 4.3. ARGITARAPENAK

Sail honek bi azpisail ditu:

**ARGITALPENEN KATALOGOA**  
**CATALOGO DE PUBLICACIONES**  
**CATALOGUE DES PUBLICATIONS**

**1987**



REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
**EUSKALTZAINDIA**  
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE



#### 4.3.1. ARGITARAPENEN BATZORDEA

Batzorde honen begipean Euskaltzaindiak 1987. urtean hurrengo liburuok argitaratu ditu, hots:

1.- Euskera agerkaria (1986,2) . Pierre Charrittonen Euskaltzaindian sartzea. Lexikologi Erizpideak Finkatzeko IV. Jardunaldiak. Euskal azentu eta ebakeraz II. Jardunaldiak. Atlasgintza. Herri-izenei buruzko adierazpenak.

2.- Euskera agerkaria (1987,1) D. Intza, A. Oieregi eta A. Donostiaren mendeurrena. P. Topet "Etxahun"en bigarren mendeurrena. Herri-izenei buruzko adierazpenak.

3.- Euskararen Lekukoak 13. zenbakiduna: Euskal testu zaharrak (I). Jose M. Satrustegik paratua. Nafarroako Gobernuak babesturiko argitarapena.

4.- Onomasticon Vasconiae 2: Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar. Jose M. Jimeno Juriok paratua. Nafarroako Gobernuak babesturiko argitarapena.

5.- JAGON Saila 2: Iparragirre. Jose M. Iparragirreren heriotzaren lehen mendeurrena dela eta, Euskaltzaindiak eginiko lanen bilduma. Iberduerok babesturiko argitarapena.

6.- Hitz-elkarketa -1. Lexikologi Erizpideen Finkapenerako Batzordeak 1986. urtean zehar burututako lanaren ondorio eta emaitza da argitarapen hau.

7.- Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-I (Eranskina). Gramatika Batzordeak paraturiko lana. Argitarapen hau lehen liburua: Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-I osatzera dator, hots: hitz ordena, -ko atzizkia eta deklinabide taulak ematen dira, banan banan, ereduazko eta zalantzazko kasu guztiak geratzen dira emanak, Euskaltzaindiak euskara baturako onetsi dituen formetan oinarrituz.

8.- Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-II. Gramatika Batzordeak paraturiko lana. Aditz-sintagma aztertzen da liburuki honetan: aditza, laguntzaile nahiz trinkoa; aditz-multzoa osatzen duten bestelako osagaiak; perifrasi-multzoak, eta abar. Halaber, aditz-paradigmak ere agertzen dira.

9.- Oinarrizko Euskararako Batzordeak: Oinarriak. 3. mailako irakurgaiak. Xabier Amurizarena. Iberdueroren babespean argitaratua.

10.- De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas en que de paso se tocan algunas cosas de la Cantabria. Andrés de Poza. Faksimilez egindako berrargitarapena laugarren mendeurrenean: 1587-1987. Kultur Ministraritzaren babespean argitaratua.

11.- Argitarapenen Katalogoa 1987. Euskaltzaindiak orain arte kaleratu dituen lanen zehaztasunak dakartzan liburukia.

12.- Zure argi kliskak. Felix Zubiagak paratua. 1986. urtean "Felipe Arrese Beitia" olerki saria irabazi zuen lana. Bizkaiko Aurrezki Kutxaren babespean argitaratua.

13.- Publikoari gorroto. Xabier Mendiguren Elizegik paratua. 1986. urtean "Toribio Alzaga" antzerki saria irabazi zuen lana. Bizkaiko Aurrezki Kutxaren babespean argitaratua.

14.- Euskaltzaindiaren Oroit-Idazkia (1985-1986). Euskaltzaindiak 1985 eta 1986 urteetan buruturiko egintza eta lanen zehaztasunak eta azalpenak dakartzan argitarapena.



#### 4.3.2. ARGITARAPEN BANAKETA ZERBITZUA

Zenbait ekintza bereiz daiteke zerbitzu honetan, alegia:

1.- Liburu banaketa eta salmenta: Euskera agerkariak gain, Euskaltzaindiaren bestelako argitarapenak zabaltzen eta saltzen dira. Urtean zehar 17.379 ale saldu ditu eta dohain edo trukean banatu, erakunde, ikastetxe, unibertsitate eta kultur elkarteen artean 2.557 ale.

2.- Durangoko Azokak: Ohi denez, Durangon Maiatzaren 29, 30 eta 31n eta Abenduaren 4, 5, 6, 7 eta 8an egin diren Euskal Liburu eta Disko Azoketan izan da Euskaltzaindiaren zerbitzu hau.

3.- Bestelako agerpenak: Bestalde, Euskaltzaindia beste erakunde edo elkarteekin batera, "Euskadi" izenpean egindako beste bi Erakusketan partaide izan da.

3.1. "EXPOLANGUES": Parisen Otsailean egiten den Nazioarteko Liburu Erakusketan, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritzarekin koordinaturik, erakutsi dira Euskaltzaindiaren zenbait argitarapen.

3.2. "LIBER 87": Madriden Irailaren 29tik Urriaren 4ra bitartean "Ifema" delako Erakustazokan "LIBER 87" izeneko erakusketan izan da Euskaltzaindiaren Ordezkaritza bat, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak koordinatutako agerraldian.



#### 4.4. ITZULPEN ETA KONTSULTA ZERBITZUA

1987. urtean laurogeitabost (85) itzulpen burutu ditu Euskaltzaindiko Argitarapenen Eragileak.

Egindako itzulpenetatik aipagarrienak hurrengo erara banatu ahal dira:

. Erakundeak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Trenbideak, Nafarroako Gobernuak, Bizkaiko Foru Diputazioa, Bilbo Handiko Uren Partzuergoa/Consortio de Aguas del Gran Bilbao, Bilboko Nazioarteko Erakustazoka/Feria de Muestras de Bilbao, Bilboko Apezpikutegia, Galdakaoko Ospitalea, Unicef, Telefónica, Iberia, Cadem, Colegio Oficial de Peritos e Ingenieros Técnicos Industriales eta ELA/STV sindikatua.

. Banku eta Aurrezki Kutxak: Banco de Bilbao, Banco Atlántico, Banco Exterior de España, Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Lankide Aurrezki Kutxa.

. Publizitate-enpresak: Aurman, Margoak, Publicidad Síntesis, Estudios Arriaga, Publicidad Alas, Deimos, Gurrutxaga & Etxebarria.

. Udalak: Bilbo, Etxebarri, Getxo, Leioa, Sopela eta Ugao.

. Beste zenbait enpresa eta partikularrak: Iberduero, El Corte Inglés, Imprenta Amado, Eroski, Fotocomposiciones Rali, Gráficas Elkar S.Coop., Editorial Santillana, Norte Industrial, Imprenta Industrial.

Aldi berean Zerbitzu honek kontsulta erara, bai telefonoz eta bai idatziz, hurrengo gaiori erantzuna eskaini die, Euskaltzaindiaren Egoitzan, alegia: euskal gramatika, euskara ikasi edo lantzeko metodologigintza, bibliografia, hiztegi-gintza, mailakaturiko irakurketa, alfabetatze orientabideak, euskarazko titulua eskuratzeko orientabide eta bibliografia, oposaketetarako prestakuntza hizkuntzari dagokiolarik, eta abar eta abar.



## **5.- Ekonomia**



## 5. EKONOMI BATZORDEA

Euskaltzaindiak eginkizun dituen helburu eta proiektuak burutu ahal izateko beharrezko diren gizabaliabideak zein baliabide materialak lortzen saiatu da. Batzorde hau, horretarako Herri Erakunde, Estatuko Erakunde, Banketxe edo Aurrezki Kutxa, norbanako herritar, salmenta edo bestelako zerbitzuetatik dirua bilduz, ekintza bakoitzari ahalik eta egokien, behar adina egozten saiatzen da.

Ohi denez, Euskaltzaindiaren urteko Aurrekontuek gorakada bat nabaritu dute batzorde bakoitzaren eta Euskaltzaindiaren lan-ihardupideek suspertzea eta azkartzea izan dutelako, diru sarreretan ere ugaltzea gertaturik.

Egitasmo edo programa batzuk eskatzen duten aritzea edo duten hedadurarengatik lantalde bereziak sortu beharra izan da, halako epe jakin batetarako lankideak hartuz. Lankide hauekin, Campion-Broussain ordezeko elkargoaren izenean, sinatzen diren hitzarmenak, Batzorde honen ardurapean egiten dira, berari baitagokio, beti ere Zuzendaritzaren esanetara, langileen kategoria, alogera eta bestelakoak konpontzea. Esan beharra dago, gai hauetan Euskal Herriko Administrazioaren lan-hitzarmena erabiltzen dela neurritzat, dagozkion edo egin behar diren egokitzeak eginez.

Guzti honek epeak zaintzea eskatuz gain, papereria garaiz eta egokiro aurkeztea ere eskatzen du. Horretarako, Arautegiak aipatu erara, aholkularien laguntza eskergaitza izaten du.

Azkenik, aurtengo egoera balantzea eskaintzen da, hots:





## 5.1. 1987. URTEKO EGOERA BALANTZEA

### SARRERAK

#### 1. DIRULAGUNTZAK

1.1. Diputazioak	65.283.711
1.2. Eusko Jaurjaritza	53.000.000
1.3. Estatuko Erakundeak	11.800.000
1.4. Udalak	1.675.000
1.5. Aurrezki Kutxak	950.000
1.6. Pertsona pribatuak	3.137.899

#### 2. ZERBITZUAK

2.1. Salmentak	4.678.075
2.2. Itzulpenak	19.890
2.3. Zertifikatuak	7.900
2.4. Berreskuraketak	1.896.507
2.5. Bestelakoak	6.208.619

#### 3. BESTELAKOAK

3.1. Maileguak	5.861.521
3.2. Patrimonia	108.933.603

### **GUZTIRA**

**263.452.725**



## 5.2. 1987. URTEKO EGOERA BALANTZEA

### IRTEERAK

1. Langile gastuak	46.524.653
2. Funtzionamendu gastuak	18.960.920
4. Batzordeak	74.949.696
6. Inbertsioak	85.311.262
9. Finantz gastuak	91.682
Argitarapenak	10.611.249
Bankuetan	26.703.263
Campion-Broussain partaidetza	300.000
<b>GUZTIRA</b>	<b>263.452.725</b>



## **6.- Aurkitegia**



**EGOITZA**

Arbieto, 3 - 48008 BILBO

Tel. (94) 4158155

Arduraduna: Jose Luis Lizundia

**"AZKUE BIBLIOTEKA"**

Ribera, 6 - 48005 BILBO

Tel. (94) 4152745

Arduraduna: Jose Antonio Arana Martija

**GORDAILUA**

Bilbo-Donostia errepidea, z/g, 4,5 Km.

Edif. SAGA, 1. solairua

48004 ETXEBARRI (Bizkaia)

Tel. (94) 4406258

Arduraduna: Rosa Mari Arza

## **ORDEZKARITZAK**

### **ARABA**

San Antonio, 41 - 01005 GASTEIZ

Tel. (945) 233648

Ordezkarria: Endrike Knörr

### **GIPUZKOA**

Txurruka, 7-2. - 20004 DONOSTIA

Tel. (943) 428050

Ordezkarria: Juan San Martin

### **NAFARROA**

Conde Oliveto, 2-2. - 31002 IRUÑEA

Tel. (948) 223471

Ordezkarria: Jose M. Satrustegi

### **IPARRALDEA**

15 rue Port Neuf - 64100 BAIONA

Tel. 07-33-59256426

Ordezkarria: Pierre Charritton





EUSKALTZAINDIA  
AZKUE BIBLIOTEKA



